## Zk-4160

AGINDUA, 2003ko ekainaren 3koa, Osasun sailburuarena, Ikerketa-lanetan Prestatzeko Bekak eta Laguntzak emateko Deialdia egiten duena.

Osasun Sailaren aginpideetako bat osasunaren zientzien arloan ikerkuntza-jarduerak sustatzea da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Euskadiko osasun sistemaren garapenerako funtsezko elementua baita hori.

Horretarako, Osasun Sailak epe luzerako estrategia bat planteatu du eskaintza ikertzaileko agenteak gaitzeko, osasuneko profesionalen ikerkuntza arloko prestakuntza sustatuz, etorkizunean Euskadiko osasun sistemako erkidego zientifiko ikertzaileko partaide bihur daitezen.

Deialdi hau Osasun Sailaren aipaturiko helburua betetzeko egiten da ikerkuntzaren arloko prestakuntzarako diru-laguntzak emanez.

Ondorioz, hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Helburua.

Agindu honen bitartez, osasunaren arloan ikerkuntzako prestakuntzarako egitarauak gauzatzeko bekak eta laguntzak emateko erregimena arautzen da eta horien deialdia egiten da.

*2. artikulua.–* Onuradunak.

Agindu honetan kontenplatzen diren bekak eta laguntzak jaso ahal izango dituzte Unibertsitateko maila goren eta ertaineko tituludunek baldin, zentro sanitario edo akademiko batean adskribituta egonik edo egon gabe, prestaketa egitasmo bat gauzatu nahi badute osasunaren arloko ikertzaile gisa prestatzeko, eta eskabidea egin den unean Euskal Autonomia Erkidegoko udalen batean erroldaturik gutxienez urtebete badaramate.

Bekak emate eta baliatzeak ez du ezartzen inolako hitzarmen- edo estatutu-harremanik bekadunaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artean.

Bekak ematea eta, dagokion kasuan, berauen onuradunei bekak eta laguntzak ordaintzea edozein prozedura ordaintzaile edo zigortzaileren amaierara baldintzatuak geratuko dira; baldin eta prozedura horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak emandako izaera bereko diru-laguntza eta bestelako laguntzen markoan hasitakoak badira eta oraindik ere izapidetze-bidean badaude.

*3. artikulua.–* Emate-prozedura.

Kontenplatzen diren bekak eta laguntzak ematea lehiaketa prozeduraren bitartez egingo da, Euskal Auto-

## N°-4160

ORDEN de 3 de junio de 2003, del Consejero de Sanidad, por la que se convocan Becas y Ayudas para Formación en Investigación.

El Departamento de Sanidad tiene entre sus competencias la de potenciar la actividad investigadora dentro del campo de las ciencias de la salud en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, como un elemento fundamental en el desarrollo del sistema sanitario de Euskadi.

Para ello, el Departamento de Sanidad ha planteado una estrategia a largo plazo para capacitar a los agentes de la oferta investigadora, impulsando la formación en investigación de los profesionales sanitarios para su incorporación posterior a la comunidad científica investigadora del sistema sanitario de Euskadi.

La presente convocatoria se realiza para cumplir este objetivo del Departamento de Sanidad, subvencionando la formación en investigación.

En su virtud

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

Mediante la presente Orden se regula el régimen de concesión y efectúa la convocatoria de becas y ayudas para la realización de planes de formación en investigación en el ámbito de la salud.

*Artículo 2.–* Beneficiarios.

Podrán acogerse a las becas y ayudas contempladas en la presente Orden los titulados universitarios superiores y medios que, estando o no adscritos a un centro sanitario o académico, pretendan realizar un plan de formación para formarse como investigadores en el campo de la salud, y figuren empadronados en un municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco con al menos un año de anterioridad a la solicitud.

La concesión y disfrute de las becas no establecerá relación contractual o estatutaria alguna entre el becario y la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La concesión y, en su caso, el pago de las becas y ayudas a los beneficiarios de éstas quedarán condicionados a la finalización de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

*Artículo 3.* Procedimiento de concesión.

La concesión de las becas y ayudas contempladas se efectuará por el procedimiento de concurso previsto en

nomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 31.4 artikuluan aurreikusten den arabera; lege hori azaroaren 11ko 1/1997 Lege Dekretuaren bitartez onartu zen. Xede horretarako, ematea aurkezturiko eskabideen konparaketaren bitartez egingo da, berauen arteko lehentasunak ezarri ahal izateko 7. artikuluan finkatzen diren balorazio-irizpideen arabera, eta laguntzak adjudikatuz, esleituriko kredituak iristen diren punturaino, baina bakarrik, balorazio fasean gutxienez hirurogei (60) puntu lortu dituztenei.

*4. artikulua.*– Baliabide ekonomikoak.

Agindu honen deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako bideraturiko aurrekontu kredituetatik datoz, eta guztira berrehun eta hogeita hamalau mila eta laurehun (234.400,00 euro) euro dira.

Aipaturiko zenbatekoa gehitu ahal izango da, kontuan edukirik eskaturiko laguntzen guztizko zenbatekoa, Deialdi hau ebatzi aurretik Osasun Saileko beste laguntza-programa batzuk gauzatu ondoren agortu gabe geratu diren erabilgarritasun ekonomikoen funtzioan. Osasun sailburuordearen erabakiaren bitartez emango da inguruabar horren berri.

*5. artikulua.*– Jarduera eta gastu finantzagarriak.

1.– Aurreikusten diren beken eta laguntzen helburua da prestakuntza egitasmoen garapena ahalbidetzea onuradunei, osasunaren arloan ikerkuntza eginkizunei ekiteko behar besteko ezagutzak eta trebeziak lor ditzaten.

2.– Ematen diren bekak prestakuntza egitasmoaren garapenak dihardun bitartean bekadunaren mantenua finantzatzeko erabiliko dira.

Bekaren iraunaldia prestakuntza planak dirauen epearen baliokidea izango da, baina gehienez ere urtebeterako izango da. Baldin prestakuntza egitasmoak iraupen luzeagoa baleuka, bekadunak ahal izango du, bekaren iraupen aldia agortu ondoren, beste laguntza bat eskatu, bere garaian egingo diren etorkizuneko deialdietan aurreikusten denaren arabera.

3.– Laguntzak prestakuntza egitasmoaren garapenak berekin dakartzan gastuetarako izango dira, hala nola, bidaia-gastuak. matrikulazioa, alogera edo ostatua, materialen erosketa, etab.

4.– Eskatzaileak inolako lan ordaindurik egiten ez duen kasuan, beka osagarri bat lortu ahal izango du, gastuetarako laguntza ekonomiko batekin. Eskatzaileak prestakuntza egitasmoan dihardun bitartean beste jarduera ordainduren bat garatuko balu, gastuetarako laguntza ekonomikoa soilik lortu ahal izango du.

*6. artikulua.*– Beka eta laguntzen diru-hornidura:

el artículo 51.4 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre. A estos efectos la concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de valoración fijados en el artículo 7, y adjudicando, hasta donde alcancen los créditos asignados, únicamente ayudas a aquellas que alcancen un mínimo de sesenta (60) puntos, en la fase de valoración.

*Artículo 4.* Recursos económicos.

Los recursos económicos destinados a la financiar la convocatoria de la presente Orden proceden de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ascendiendo a la cantidad de doscientos treinta y cuatro mil cuatrocientos (234.400,00 euros) euros.

El expresado importe podrá ser incrementado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades económicas no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Sanidad, con carácter previo a la Resolución de la Convocatoria. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Sanidad.

*Artículo 5.* Actividades y gastos financiables:

1.– Las becas y ayudas previstas pretenden posibilitar a loa beneficiarios el desarrollo de planes de formación que les permita adquirir los conocimientos y destrezas suficientes para acometer tareas de investigación en el ámbito de la salud.

2.– Las becas que se concedan irán destinadas a financiar el sostenimiento del becario durante el desarrollo del plan de formación.

La beca se concederá por un período equivalente al del plazo de duración del plan de formación sin rebasar el período máximo de un año. Si el plan de formación tuviera una duración superior, el becario podrá, finalizado el período de disfrute de la beca, solicitar una nueva ayuda, de acuerdo con lo que se prevea en futuras convocatorias que en su momento se realicen.

3.– Las ayudas se concederán para gastos incurridos en el desarrollo del plan de formación, tales como gastos de viajes, de matrícula, de estancias, de adquisición de material etc.

4.– En aquellos supuestos en que el solicitante no desarrolle trabajo remunerado alguno, podrá acceder a la concesión de una beca complementada con una ayuda económica para gastos. En aquellos otros casos en que el solicitante simultanee la preparación con el desarrollo de una actividad remunerada sólo podrá acceder a una ayuda económica para gastos.

*Artículo 6.* Dotación económica de las becas y ayudas:

Beken diru-hornidura gehienez hileko mila eta bostehun (1.500,00 euro) eurora iritsi ahal izango da, prestakuntza egitasmoa garatuko den lekuko edo lekuetako bizi-kostuaren arabera.

Gastuetarako laguntzen diru-hornidurak gehienez hileko zazpi mila eta berrehun (7.200,00 euro) eurora iritsi ahal izango dira.

7. *artikulua.*– Beka eta laguntzen bateragarritasun erregimena.

Agindu honen babespean ematen diren beken erabilpena bateraezina izango da beste edozein lan ordaindu egitearekin, helburu bererako edozein erakunde publiko zein pribatuk emaniko beste beka edo laguntzaren bat jasotzearekin eta prestakuntza egitasmoari dagozkion lanak behar bezala garatzea eragozten duen edozein jarduerarekin.

Bestalde, Agindu honen babespean ematen diren laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako lortu litekeen beste edozein motatako laguntza edo dirulaguntzarekin baldin eta finantzaturiko jardueraren gainfinantzaketa bat eratortzen ez bada. Hori gertatuko balitz, emandako laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da dagokion gehieneko mugaraino.

8. *artikulua.*– Eskabideak: aurkezteko dokumentazioa eta aurkezteko epe eta lekua.

1.– Agindu honetan aipatutako bekez eta laguntzez baliatzeko eskabideak, I Eranskin legez agertzen den eredu normalizatuan formulatuko dira eta Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariari bidaliko zaizkio. Helbidea: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. Era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako gainerako moduetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

2.– Eskabideak aurkezteko epea bi hilabetekoa da, Agindu hau indarrean sartzen denetik kontatzen hasita.

3. Eskabidearekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

b) Curriculum vitæ laburtua.

c) Prestakuntza egitasmoa, ikertzaile gisa prestatzeko urtean zehar egitea aurreikusten den aktibitateekin eta aktibitate horietatik eratorriko diren gastuen estimazioarekin.

d) Erroldatze ziurtagiria.

e) Zinpeko aitorpena garatu behar den jarduerarako egon litekeen beste edozein finantzaketa iturriren existentziaren edo eskabidearen gainean. Beka-eskabidea-

La dotación económica de las becas podrá ascender a la cantidad máxima de mil quinientos (1.500,00 euros) euros mensuales, en función del coste de la vida del lugar o lugares en que vaya a desarrollarse el plan de formación.

La dotación económica de las ayudas para gastos podrá alcanzar la cantidad máxima de siete mil doscientos (7.200,00 euros) euros mensuales.

*Artículo* 7. Régimen de compatibilidad de las becas y ayudas.

El disfrute de las becas que al amparo de la presente Orden se concedan será incompatible con la realización de cualquier trabajo remunerado, con la percepción de otra beca o ayuda que, para el mismo fin pudiera ser otorgada por cualquier otra institución pública o privada y con cualquier ocupación que impida un adecuado desarrollo de los trabajos inherentes a las mismas.

Por su parte, las ayudas que se concedan al amparo de la presente Orden serán compatibles con la obtención de cualquier otro tipo de ayuda o subvención que se pudiera obtener para el mismo fin siempre que de ello no se derive sobrefinanciación de la actuación con ella financiada. Caso de producirse ésta se reducirá el importe de la ayuda concedida hasta el límite máximo que corresponda.

*Artículo 8.*– Solicitudes: documentación a presentar y plazo y lugar de presentación.

1.– Las solicitudes para acogerse a las becas y ayudas contempladas en la presente Orden, se formularán en el correspondiente modelo normalizado que figura como anexo I y se dirigirán y remitirán al Director de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad, C/ Donostia-San Sebastián, n.º 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, pudiendo asimismo, presentarse en las demás formas indicadas por el artículo 38.4. de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común.

2.– El plazo de presentación de solicitudes será de dos meses a partir de la entrada en vigor de la presente Orden.

3.– A la solicitud deberá adjuntarse la documentación siguiente:

a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad.

b) Curriculum Vitae abreviado.

c) Plan de formación con las actividades previstas realizar durante el año para formarse como investigador y estimación de los gastos que dichas actividades generarían.

d) Certificado de empadronamiento.

e) Declaración jurada sobre la existencia o solicitud de otras fuentes de financiación para la actividad a desarrollar. Tratándose de solicitud de beca la declaración

ren kasuan, aitorpenak adierazi beharko du ez dagoela lan ordaindurik, ez dela jaso beste bekarik edo laguntzarik helburu bererako, eta ez dela gauzatzen ezein jarduera bekaren xede diren lanen garapen egokia eragotz lezakeenik.

f) Hirugarren interesatuaren datuen alta, (II. Eranskina), eskatzaileak eta banku erakundeak betea.

g) Eskatzailea zentro sanitario edo akademikoren batean adskribiturik legokeen kasuan, zentroko Ikerkuntza Babesteko Unitateko koordinatzailearen Txostena eta Ikerkuntzako Batzordearen lehendakariarena, edo horren baliokide den beste norbaitena, aurkeztu behar da, laguntza eskatzen den jarduera formatiboa bermatuz. Gainerako kasuetan, txostena Osasun Ikerkuntzako Euskal Institutuak egingo du.

k) Eskatzailea dagokion zentroko zuzendariaren baimena, behar izanez gero, prestakuntza egitasmoa gauzatzeko.

*9. artikulua.–* Eskabideko akatsen zuzenketa.

Diru-laguntzen eskabideek daturen bat bete gabe utzita baleukate edo exijitzen den dokumentazio guztia ez baleukate, interesatuari eskatuko zaio hamar eguneko epean falta dena osatzeko edo eskatzen diren agiriak eransteko, jakinaren gainean jarriz ezen horrela egiten ez badu, alde batera utziko dela eskabide hori; dena den, Administrazioa beharturik dago eskabide horri buruzko ebazpen adierazia diktatzera eta jakinaraztera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71.1 eta 42.1 artikuluetan xedatzen denaren arabera.

*10. artikulua.–* Eskabideen ebaluazioa:

1.– Aurkezten diren eskabideen ebaluaziorako Balorazio Batzorde bat eratuko da, honako hauek osatua: Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariak —lehendakari gisa jardungo du—, eta, laguntzaile gisa, Osasun Ikerkuntzako Euskal Institutuko zuzendariak eta Osasun Saileko I + G arloko Laguntzen teknikari arduradunak, zeinak idazkari gisa jardungo duen.

2.– Bere eginkizuna betetzeko, prestakuntza egitasmoaren ulerkuntza zehatzerako dokumentazio osagarria exijitu ahal izango die Batzordeak eskatzaileei eta, era berean, eskabideen balorazio egokia egiteko beharrezkoak direla deritzoten txosten teknikoak exijitu ahal izango dituzte.

3.– Azkenik, Batzordeak, baloraziorako aurreikusiriko irizpideak aplikatuz, formulatu diren eskabideak baloratuko ditu eta dagokion ebazpen-proposamena helaraziko dio Osasun sailburuordeari.

*11. artikulua.–* Adjudikaziorako eta kuantifikaziorako irizpideak.

versará sobre la inexistencia de trabajo remunerado, la percepción de otra beca o ayuda para el mismo fin así como de cualquier ocupación que impida un adecuado desarrollo de los trabajos inherentes a la misma.

f) Alta de datos de tercero interesado, (Anexo II), cumplimentada por el solicitante y la entidad bancaria.

g) En el supuesto de que el solicitante estuviera adscrito a un Centro sanitario o académico, informe del Coordinador de la Unidad de Apoyo a la Investigación del Centro y del Presidente de la Comisión de Investigación, o figura equivalente, avalando la actividad formativa para la que se solicita la ayuda. En otros supuestos el informe lo realizará el Instituto Vasco de Investigación Sanitaria.

k) Autorización del Director del Centro al que pertenezca el solicitante, en su caso, para realizar el Plan de formación.

*Artículo 9.–* Corrección de los defectos de la solicitud.

Si las solicitudes de subvención no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación exigida, se requerirá al interesado para que en un plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida en su petición, estando obligada la Administración a dictar resolución expresa sobre esta solicitud, así como a notificarla, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 71.1 y 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 10.–* Evaluación de las solicitudes:

1.– Para la evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá la correspondiente Comisión de Valoración integrada por el Director de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad, que actuará como presidente, y como vocales por la Directora del Instituto Vasco de Investigación Sanitaria y el técnico responsable de Ayudas en I+D del Departamento de Sanidad, que actuará como secretario.

2.– Para el cumplimiento de su cometido la Comisión podrá requerir a los solicitantes la presentación de la documentación complementaria necesaria para la cabal comprensión de plan de formación y solicitar los informes técnicos que considere necesarios para una adecuada valoración de las solicitudes.

3.– Finalmente, la Comisión en aplicación de los criterios de valoración previstos evaluará las solicitudes formuladas y elevará al Viceconsejero de Sanidad la correspondiente propuesta de resolución.

*Artículo 11.–* Criterios de adjudicación y cuantificación.

1.– Beka eta laguntzen adjudikazioa honako irizpide hauetan oinarriturik eta baremo honen arabera egingo da:

– Eskatzailearen Curriculum vitæ: Gehienez 20 puntu.

– Proposaturiko Prestakuntza-egitasmoaren kalitatea: Gehienez 45 puntu.

– Prestakuntza- egitasmoa iraupen luzeagoko beste espezializazio programaren batean sartuta egotea: Gehienez 10 puntu.

– Agindu honen 8.3.g) artikuluan aipatzen den txostenaren balorazioa: Gehienez 10 puntu.

– Eskatzailea Euskadiko osasun sistemakoa izatea, profesionalen kasuan beren espezialitatea, egoiliar gisa, 2003an amaitzea, edo azken bi urteetan amaitua izatea, edo erizaintzako ENI lizentziatua izatea: Gehienez 15 puntu.

2.– Agindu honetan kontenplatzen diren beka eta laguntzetatik kanpo geratuko dira aurreko atalean zehaztu diren irizpideak aplikatu ondoren gutxienez hirurogei (60) puntura iristen ez diren eskabideak.

3.– 6. artikuluan ezarri diren gehienezko zenbatekoei dagokienez, beken horniduraren zehaztapena finantzaketaren objektu den prestakuntza-egitasmoaren iraupenaren eta berau garatuko den lekuetako bizi-kostuaren arabera erabakiko da, eta laguntzena prestakuntza-egitasmoaren garapen egokirako ezinbestekoak diren gastuen arabera.

*14. artikulua.*– Ebazpena.

1.– Deialdiaren ebazpena Osasun sailburuordeak emango du, Balorazio Batzordearen proposamenak ezagutu ondoren.

2.– Ebazpenean honako hauek adieraziko dira: onuradunen zerrenda, ematen den laguntzaren mota (beka edo diru-laguntza) eta bakoitzaren zenbatekoa. Gainera baldin eta behar besteko puntuazioa duten hautagaiak egonik, deialdirako esleituriko fondoak agortu balira, ebazpenean adierazi beharko da, zehaztasun berberarekin, ordezko eskatzaileen zerrenda bat, lehentasunen arabera ordenatua, onuradunen aldetik uko egiteren bat gerta litekeen kasurako.

3. – Hartu den erabakia interesatuetako bakoitzari jakinaraziko zaio eskabideak aurkezteko epemugaren ondorengo bost hilabeteko epearen barruan. Ebazpenarekin batera, onuradun bakoitzari dagokion onarpen dokumentua helaraziko dio, bete ondoren, Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzara bidal dezan.

4.– Baldin aipatu epea iraungi ondoren dagokion Ebazpenaren jakinarazpenik egin ez bada, interesatuek uler dezakete euren eskabidea ezetsia izan dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Adminis-

1.– La adjudicación de las becas y ayudas se realizará sobre la base de los criterios y con la ponderación siguiente:

– Curriculum Vitae del solicitante: Máximo 20 puntos.

– Calidad del Plan de Formación propuesto: Máximo 45 puntos.

– Inclusión del Plan de formación en un programa de especialización de una duración superior. Máximo 10 puntos.

– Valoración del informe al que se hace referencia en el artículo 8.3.g) de esta Orden: Máximo 10 puntos.

– Pertenecer el solicitante al sistema sanitario de Euskadi, tratarse de profesionales sanitarios que terminen su especialización como residentes en el año 2003 o lo hubieran finalizado en los dos últimos años o ser licenciados ENI de enfermería: Máximo 15 puntos.

2.– No accederán a las becas y ayudas contempladas en la presente Orden aquellas solicitudes que no obtengan un mínimo de sesenta (60) puntos, tras la aplicación de los criterios contemplados en el apartado anterior.

3.– Dentro del respeto a las cuantías máximas establecidas en el artículo 6, la concreta determinación de la dotación de las becas se efectuará en función del período de duración del Plan de formación para cuya financiación se solicitan, el costo de la vida en los lugares en que habrá de desarrollarse, y el de las ayudas en función de la necesidad del gasto para el correcto desarrollo del Plan de formación.

*Artículo 14.*– Resolución.

1.– La convocatoria será resuelta por el Viceconsejero de Sanidad, a propuesta de la Comisión de Valoración.

2.– La Resolución expresará la relación de beneficiarios, el tipo de subvención concedida (beca o ayuda económica) y su respectivo importe. Además, en caso de que existiendo candidatos con puntuación suficiente, se hubiera producido el agotamiento de los fondos asignados a la convocatoria, podrá comprender, con idénticas precisiones, una relación en orden de prelación de otros solicitantes suplentes para el caso de que se produzca alguna renuncia por parte de los beneficiarios.

3.– La Resolución adoptada será notificada individualmente a los interesados en el plazo de cinco meses a partir de la finalización del plazo de presentación de solicitudes. Junto con la resolución se enviará a cada beneficiario el correspondiente documento de aceptación que deberá remitir cumplimentado a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria.

4.– Si transcurrido dicho plazo no se ha notificado la correspondiente Resolución, los interesados podrán entender desestimada su solicitud a los efectos de lo establecido en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de

trazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 44. artikuluan xedatzen denaren ondorioetarako.

5.– Osasun sailburuordearen ebazpenaren aurka interesatuek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasun sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 114. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen denaren arabera.

6.– Eskabidearekin batera aurkezturiko dokumentazioa erretiratzeko epea, laguntza ukatu den kasuetan, hilabetekoa izango da Ebazpena argitaratzen den datatik zenbatzen hasita, baldin beronen aurka errekurtsorik jarri ez bada. Errekurtsoa aurkeztu den kasuan ebazpen ezeslea jakinarazten den egunetik aurrera kontatuko da hilabeteko epea.

*15.– artikulua.–* Onuradunen betebeharrak.

Ematen diren beka edo laguntzen onuradunek betiere betebehar hauek izango dituzte:

a) Emandako beka edo laguntza onartzea. Zentzu honetan, baldin jakinarazpena jaso duen egunetik kontatzen hasita, 15 laneguneko epean, aurreko artikuluko 3 idatz-zatian zehazten den onarpen agiria Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzara helaraziko ez balu, onuradunak bekari edo laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

b) Beka edo laguntza emana izan den helburu zehatzerako erabiltzea.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren zereginetan dihardutela, deialdi honen kargura jaso diren diru-laguntzen inguruan eskatzen duten informazio guztia ematea.

d) Eskabidea egitean adierazi ziren datuetan edozein aldaketa gertatuz gero, Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari jakinaraztea. Batez ere, 7. artikuluan kontenplatzen den bateragarritasun erregimenari eragiten diotenak.

*16.– artikulua.–* Ordainketa.

Ematen diren beka eta laguntzen ordainketa zatika egingo da, era honetan:

a) Bekak:

Eman den bekak daukan iraupen aldian sartzen diren hiruhilekoak adina alditan egingo dira ordainketak.

Lehenbiziko ordainketa, bekaren lehenbiziko hiruhilekoari dagokiona, bekaren iraupen aldiagatik bakarra ez izatea gertatzen den guztietan, 14.3 eta 15.a) artikuluetan aipatzen den onarpen-agiria, behar bezala beteta, jaso bezain laster egingo da.

noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

5.– Contra la Resolución del Viceconsejero de Sanidad, podrán los interesados interponer recurso de alzada ante el Consejero de Sanidad, en el plazo de un mes a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo establecido en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre.

6.– El plazo para retirar la documentación aportada con la solicitud, en los casos de denegación de la ayuda, será de un mes a partir de la publicación de la correspondiente Resolución, siempre que no se hubiese recurrido la misma. En caso de presentarse recurso, el plazo comenzará a contar desde la notificación de la resolución desestimatoria.

*Artículo 15.–* Obligaciones de los beneficiarios

Los beneficiarios de las becas o ayudas concedidas deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la Beca o ayuda concedida. En este sentido, si en el plazo de 15 días hábiles a contar desde su recepción no remitiera a la Dirección de Planificación y Ordenación sanitaria el documento de aceptación a que se refiere el apartado 3 del artículo anterior, se entenderá que renuncia a la beca o ayuda.

b) Utilizar la beca o ayuda para el destino concreto para el que ha sido concedida.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que les sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de la subvención recibida con cargo a esta convocatoria.

d) Comunicar a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria cualquier variación de los datos o circunstancias que se reflejaron en la solicitud. Especialmente aquellas que afecten al régimen de compatibilidad contemplado en el artículo 7

*Artículo 16.–* Abono.

El pago de las becas y ayudas que se concedan se efectuará, fraccionadamente, del siguiente modo:

a) Las becas:

Serán satisfechas mediante un número de pagos o libramientos equivalente al número de trimestres comprendidos en el plazo de duración de la beca concedida.

El primer abono correspondiente al primer trimestre de la beca se efectuará, siempre que por razón de la duración de la beca no sea el único, con carácter inmediato una vez recibido, debidamente cumplimentado, el documento de aceptación a que se refieren los artículos 14.3 y 15.a).

